

**FRANTZIAKO HAUTESKUNDEAK.** Alderdi abertzaleak batzar nazionala egin du Baionan

# Mezu propioarekin «presente» izanen da Batasuna hauteskundeetan

Lehendakaritza eta Legebiltzarrerako bozetan abertzaleekin ez dela lehiatuko adierazi du

Aitor Renteria | BAIONA

Batasunak bi erabaki hartu zituen atzo Baionan eginiko Batzar Nazionalan: batetik, Batasuna «presente» izanen dela Frantziako hauteskundeetan, eta, bertzetik, jokaleku demokratiko batera heltzeko proposamena osatuko duela. «Ez gara lehiatuko gainerako alderdi abertzaleekin, hauteskunde horiek ez dutelako merezi abertzaleen arteko lehia», adierazi zuen Arnaldo Otegi Batasuneko eledunak.

Alabaina, Batasuna Frantziako Lehendakaritza eta Legebiltzarrerako hauteskundeetan presente izanen dela gaineratu zuen Otegi. «Herri honetako gehiengo zabalak, abertzaleak ez direnak ere, talde politikoetako zuzendaritzak gaindituz, bakearen alde da, eta bake ideia hori aldaketa politikoarekin, autodeterminazio eskubidearekin lotzen du», adierazi zuen Otegi.

«Urtarrilean Iruñean eta otsailean Baionan, Batasunak bake proposamen zehatza egin zuen, eta gaurko bilkuran, haren osagarria den jokaleku demokratiko batera heltzeko proposamena aztertu dugu», erran zuen Arnaldo Otegi Batasuneko eledunak. Proposamen hori ez dute oraindik argitaratu. Izan ere, atzo Batzar Nazionalak aztertu zuen, gero herrietara hedatuko dute, eta apirilaren bukaera aldera Batasunak gizaritari eskainiko dio proposamen berria. Dena dela, «ezker abertzalea hauteskundeetako logikak gaindituz, euskal logika eramanen du hauteskunde horietara, gatazka armatua gainditzeko proposamenak eta jokaleku demokratiko bat eraikitze-ko baliabideak eskainiz», azpimarratu zuen Otegi. Bata-



Batzar nazionala Baionan egin zuten, atzo goizean, Batasuneko kideek.

## ESANAK

**ARNALDO OTEGI** Batasuneko eleduna

«Ez gara lehiatuko gainerako alderdi abertzaleekin, hauteskunde horiek ez dutelako merezi lehia hori»

«Bakearen alde dira herritar gehienak, eta haiei lan tresna bat eskaini nahi diegu»

«Norbaitek eraginkortasuna ukan dezakeen bakerako bertze jokalekurik badu, ezar dezala mahai gainean»

sunak ez zuen zehaztu zerrendarik aurkeztuko duen edo absententzio aktiboa egitea erabakiko duen.

«Herritar gehiengo hori lan tresna bat eskaini nahi diogu, irekia, malgua, herri honetan

behin betiko abian jar dadin egiazko jokaleku demokratiko bat», zehaztu zuen Otegi.

### ETAren menia

ETArri menia eskatzen dioten arrazoiak Batasunari

errespetagarriak iruditzen zaizkiola adierazi zuen Otegi. «Baina ezin gaitzke ados egon soilik beren arrazoiak direlarik zilegi eta Batasunarenak baztertzen direlarik», erran zuen Otegi.

«Irlandan, Palestinan, Hegoafrikan, negoziatio eta elkarrizketaren bidetik abiatu dira, eta erakutsi dute posible dela ildo horretatik aitzinatzea bake jokalekua lortzeko», adierazi zuen Otegi. «Norbaitek eraginkortasuna ukan dezakeen bakerako bertze jokalekurik baldin badu, ezar dezala mahai gainean», gaineratu zuen Otegi. «1998an alde batek frogatu zuen, bakea erdietsi ez bazen ere, distentsioa lor zitekeela», bukatu zuen Batasuneko eledunak.

## ZUMARRAGA

**PPk zerrendari uko egin eta kudeaketa batzordea sortzea ahalbidetu du**

Erredakzioa | DONOSTIA

Zumarragako Alderdi Popularreko udal hauteskundeetako zerrendakide guztiak zinegotzi kargua hartzeko aukerari uko egin ondoren, Udala gobernatu duen kudeaketa batzordea izendatzeko baldintza guztiak betetzen dira. Batzordea osatzeko derrigorrezkoa zen PSE-EE eta PPko zerrendetako hautagai guztiak uko egitea karguari. PSE-EEko kideek bete zuten baldintza, eta PPk atzo jakinarazi zuen bete duela tramitea.

PPk prentsa ohar baten bidez adierazi duenez, «PPk lehen urratsa egin du, eta orain instituzioen esku dago batzordea osatzea». Gipuzkoako Foru Aldundiak iragarri zuen, kargu guztiak uko egin eta gero, batzordea osatzeko lanean hasiko zirela, «ordezkaritza lortu zuten alderdi guztien presentzia bermaturik».

### Hamar zinegotzi bakarrik

Manuel Indiano PPko zinegotziaren aurkako atentatuaren ondoren, eta Zumarragako Udaleko bost zinegotzi sozialistek eta Batasuneko batek kargua utzi ostean, udalbatza osatzen zuten 17 zinegotzietatik 10 bakarrik geratzen dira egun. Horregatik, Zumarragan kudeaketa batzordea osatzea erabaki zen Ajuria Enean Juan Jose Ibarretxe deitutako Seguratsun Batzordean. Batzorde berria karguan jarraitzen duten zinegotziek eta Foru Aldundiak aukeratuko dituen beste zazpi kidek osatuko dute.



**aberi**  
eguna '02  
martxoak 31

**DONIBANE LOHIZUNEN**

**BAZKARIA PRESO ETA IHESLARIEN ALDE**  
Jai Alaian 14:00etan  
izena emateko telf.0033559253364

**MANIFESTALDIA**  
Ziburuko plazan 17:00etan

**DANTZALDIA eta KONTZERTUA**  
Jai Alaian 20:00etan

**herri bat gara!** 12:00etan kontzentrazioak herri guztietan

batasuna